

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

203

1491/2020 EBAZPENA, abenduaren 9koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario integratuko zuzendari gerentearena. Honen bidez, Jose Angel Navarrina Martinez jauna aldi baterako izendatuta, lau urterako eta luzatzeko aukerarekin, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko atalburu sanitario, espezialitate honetan: Obstetria eta Ginekologia (Obstetria atala).

Otsailaren 6ko 104/2020 Ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESiko atalburu sanitarioaren lanpostua lehiaketa bidez betetzeko, espezialitate honetan: Obstetria eta Ginekologia (obstetria atala).

Epaimahai kalifikatzaileak aurkeztu diren eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Jose Angel Navarrina Martinez jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESiko atalburu sanitario, espezialitate honetan: Obstetria eta Ginekologia (obstetria atala).

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jose Angel Navarrina Martinez jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESiko atalburu sanitario izendatzea aldi baterako, espezialitate honetan: Obstetria eta Ginekologia (obstetria atala).

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, eta aldi baterakoa izango da, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta ondorioetarako data hau izango da: 2020ko abenduaren 4a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ez bada luzapena onartzen, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik, alde aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko 6. atalean aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen hau interesdunari eta Donostialdeko ESleri jakinaraztea.

2021eko urtarrilaren 18a, astelehena

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea emango da, Ebazpen hau EHAAan argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Donostia, 2020ko abenduaren 9a.

Donostialdeko ESIko zuzendari-kudeatzailea.

E (53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Langileen zuzendaria,
ESTHER LITAGO SOLA.